




Heteropterus

Nº 32 Zkia. - Septiembre 2014 Iraila

ISSN: 1576-1819

En
Francia
robaron
a un apicultor
de Lyon
nada menos
que 61
colmenas con
sus 25.000
abejas incluídas.
Las pérdidas
ascendieron
a casi
62000
euros.



Eltxoek
hegoen
burrunda
aldatu egiten
dute,
balizko
bikotekide
batekin
"sintonizatze".



Ikertzaile
talde batek
ikusi zuen,
16.000
kakalardo
pilotagile,
elefante gorotz
pila batera
hurbildu eta
bi ordutan
osoa eramaten.



En unas investigaciones
en el Amazonas peruano,
Troy Alexander, de la Universidad de Georgia
Tech, ha descubierto unas construcciones
simétricas en forma de cerca.
Pero todavía se desconoce
si su autor es una
araña o una polilla,
¿tú qué crees...?



Argitaratzailea / Edita:
Gipuzkoako Entomologia
Elkartea - Asociación
Gipuzkoana de Entomología

Lege-gordailua / Depósito legal:
SS - 1.378/99

ISSN: 1576-1819

Erredakzio taldea / Comité de
redacción:

Pedro Ayerbe
Eli Insausti
Mónica Menéndez
Miriam Moreno
Arantza Oyarbide
Faustino Uranga
Imanol Zabalegui

Azalaren diseinua / Diseño de la
portada:
Faustino Uranga

Azaleko argazkia / Fotografía
de la portada:

Zygaena lavandulae (Esper, 1783)
LEPIDOPTERA: ZYGAENIDAE
Imanol Zabalegui

Dohainikako argitalpena bazkide,
Gipuzkoako Eskola eta Udale-
txeentzat / Publicación gratuita
para los socios, Colegios y
Ayuntamientos de Gipuzkoa.

HETEROPTERUS

Egoitza soziala / Sede social:
Oiartzun (Gipuzkoa)

Gutunak helbide honetara bida-
li behar dira / Toda la corres-
pondencia debe enviarse a:



HETEROPTERUS

Apdo. 193 P.K.
20120 Hernani (Gipuzkoa)



www.heteropterus.org
heteropterus@heteropterus.org

Nº 32 Zkia. • Septiembre 2014 Iraila

HETEROPTERUS

GIPUZKOAKO ENTOMOLOGIA ELKARTEA
ASOCIACIÓN GIPUZKOANA DE ENTOMOLOGÍA

AURKIBIDEA – ÍNDICE

	<u>Orr. / Pág.</u>
Editoriala / Editorial	4
10. Ekitaldi gastroentomologikoa Hernanin / 10º Evento gastroentomológico en Hernani	5-8
Jorge Luis Agoiz Bustamante	
Gipuzkoako intsektuak / Insectos de Gipuzkoa	9-12
Entomofaunaren inbentarioa / Inventario de la entomofauna	13
Poesia liburutegian / Poesía en la biblioteca	14-15
Hemeroteka	16-17
Intsektuekin jolasean / Jugando con los insectos	18
Faustino Uranga	



OIARTZUNGO
UDALA

Oiartzungo Udalaren laguntzarekin

Con la colaboración del
Ayuntamiento de Oiartzun

www.heteropterus.org

EDITORIALA - EDITORIAL



Bazkide egiteko datuak / Datos para hacerse socio

Izen Abizenak / Nombre y Apellidos.....

Helbidea / Dirección.....

Herria / Localidad..... KP / CP.....

Bazkide / Socio: 25 euro urteko / anuales (2014)

Bazkide gaztea / Socio juvenil: 20 euro urteko / anuales (2014)

(Para el extranjero 5 euros más / Atzerrirako 5 euro gehiago)

“HETEROPTERUS”

Gipuzkoako Entomologia Elkarteak -

Asociación Gipuzkoana de Entomología

Egoitza soziala / Sede social: OIARTZUN (Gipuzkoa)

✉ Gutunak / Correspondencia: Apdo. 193 P.K.

20120 HERNANI (Gipuzkoa)

🌐 www.heteropterus.org

heteropterus@heteropterus.org

Orri hau ez baduzu moztu nahi, fotokopia batean edo paper batean bidali ditzakezu zure datuak. Si no quieres cortar esta hoja, puedes fotocopiarla o simplemente mandarnos tus datos escritos en una hoja.

10. EKITALDI GASTROENTOMOLOGIKOA HERNANIN 10º EVENTO GASTROENTOMOLÓGICO EN HERNANI

Jorge Luis Agoiz Bustamante

Homo sapiens ssp entomologicus Nuestradamus, 1898 (Vertebrata, Mammalia) aldizka elkartzen den kolonia baten ohar etologikoak eta trofismoaren ikerketa.

Notas etológicas y estudio del trofismo de una colonia eventual de *Homo sapiens ssp entomologicus* Nuestradamus, 1898 (Vertebrata, Mammalia).

Sarrera

Azken hamarkada honetan (hamar urteotan, berriro diot, hamar urteotan), *Homo sapiens ssp entomologicus*-en (Nuestradamus, 1898) aldian behingo agerraldiak zuzenean behatzeko eta ikertzeko aukera izan dugu. Subespezie kurioa dugu hau. Gehienetan bakarka ikusten ditugu eta oso gutxitan taldean (apenas dagoen horrelakorik inon jasota).

Introducción

Durante la última década (esto es, diez años, repito, diez años), se ha tenido la oportunidad de observar y estudiar directamente una periódica concentración de ejemplares de *Homo sapiens ssp entomologicus* (Nuestradamus, 1898). Es ésta una curiosa subespecie que habitualmente puede verse en ejemplares aislados y cuyas manifestaciones de gregarismo



Goian / Arriba: Iñigo Ugarte, Ignacio Pérez Moreno Iñaki Recalde, Xanti Pagola eta Marta Saloña. *Erdian / Medio:* Juandi González, Javi Hernández, Fernando Hiribarregarai, Maitane Barrio, Iñigo Alzugaray, Ailander Urutiaga, Josean Albisu, Arantza Oyarbide, Fernando Salgueira eta Jorge Agoiz. *Behean / Abajo:* Antonio San Martín, Iñaki Aiertza, Joseba Albisu, Faustino Uranga eta Imanol Zabalegui.

Horrelako espezimen talde bat agertzea oso bitxia da, bakartiki direlako eta ezkutuaz ibiltzeko ohitura dutelako. Horregatik merezi du talde horren jarraipena egitea, beren joeren inguruko informazioa emateaz gain, etologia-zientziaren aurrerapenerako datu interesgarriak ere eskaini ditzakeelako.

Aproposa iruditu zaigu, beraz, noizean behin baina aldiro egiten dituzten bileretan, beren portaerak eta elikadura ohiturak aztertzea. Era berean, gogo handiz ekin diot ohar hau idazteari. Nagusiki egileak zuzenean jasotako datuetan oinarritua dago, baina beste kide batzuek emandako informazioa ere jasotzen du.



Materiala eta metodoak

Datuak lortzeko kamuflajea eta infiltrazioa erabili dira. Gakoa izan da identitate faltsua hartu eta ikertu beharreko espezimenen konfiantza lortzea, errezelarik sortu gabe.

Ahalik eta espezimen gehien erakartzearren, ohiko baliabideak (posta, telefonoa) eta gaur egun erabiliagoak direnak (posta elektronikoa, sms-a, etab.) erabili dira.

Horrela bada, bilera egiteko toki erakargarri eta diskretu bat aukeratu zen, Ugaldetxo jatetxea (ohiko lekua, betiko lekua), aurreko deialdietan hainbesteko arrakasta izan duen lekua, aldeaz aurretik aukeratutako tranpan erortzeko aukerak areagotzeko.

Lau haizeetara zabaldu zen lagunarte atsegina izateko aukera (denak kideak izanagatik); are gehiago esango nuke, ziurtasuna.

Halaber, jateko solidoen berri eman zen, amu moduan erabiltzeko. Jateko ugari eta era askotakoa agindu zen.

Amu likidoen berri ere eman zen: sagardoa, ardoa (beltza edo gorria), garagardoa, hainbat infusio eta likore bizigarri, neurri askotako zilindro itxurako kristalezko hainbat ontzitan eskainiak.

son escasas y poco documentadas.

La aparición regular de un grupo de estos especímenes, normalmente individualistas y que suelen ocultarse de las miradas del populacho, constituye un fenómeno raro y que merece un seguimiento con el objeto de caracterizar sus inclinaciones así como aportar otros datos interesantes para el progreso de la ciencia de la etología.

Hemos creído oportuno, pues, determinar sus pautas de comportamiento en éstas reuniones (ocasionales pero regulares) y estudiar sus inclinaciones alimentarias, acometiendo con entusiasmo la redacción de ésta nota basada principalmente en los datos recogidos por el autor así como en comunicaciones personales de otros colegas.

Material y métodos

Para la obtención de datos, se ha utilizado el método de camuflaje e infiltración entre el grupo de especímenes, adoptando una falsa personalidad que confiara a los ejemplares a estudiar y no levantara sospechas.

Para intentar atraer al mayor número de especímenes posible, se procedió a distribuir la convocatoria tanto por medios tradicionales (correo, teléfono) como por los medios de comunicación al uso en la actualidad (correos electrónicos, sms y cualquiera otro disponible). Se fijó así un lugar de reunión atractivo y discreto, el restaurante Ugaldetxo (donde siempre, como siempre) de probada eficacia en convocatorias anteriores, aumentando así las posibilidades de éxito del trameo establecido. Se anunció a los cuatro vientos la posibilidad, más bien la certidumbre, de compañía agradable (a pesar de ser colegas).

Se publicitaron igualmente los cebos sólidos alimenticios, con la promesa de variado y abundante condumio.

Como cebos líquidos atrayentes, se ha usado la sidra, el vino (tinto o rosado), cerveza, infusiones variadas y licores espirituosos dispuestos en recipientes de cristal cilíndricos de tamaños variados.

En lo que se refiere a la nomenclatura, se ha optado por la más actualizada (Fauna Ibero-Lusitana Vol. III) como herramienta imprescindible, que hace de la natio (corología estricta) una herramienta necesaria para la exacta caracterización de los ejemplares.

Nomenklaturari dagokionez, gaurkotuena hautatu zen ezinbesteko tresna gisa (Fauna Ibero-Lusitana III. liburukia). Horrela, natioa (korologia zorrotza) beharrezko tresna bihurtu zen ikertutako espezimenen karakterizazio zehatza egiteko.

Aztertutako materiala

2014ko apirilaren 5a; Ugaldetxo Jatetxea, Hernani, Gipuzkoa. 60 metroko altitua, UTM 30TWN8786.

Homo sapiens ssp *entomologicus* natio gipuzkoanus, 10 exx.

Homo sapiens ssp *entomologicus* natio bizkaianus, 3 exx.

Homo sapiens ssp *entomologicus* natio navarricus, 3 exx.

Homo sapiens ssp *entomologicus* natio alabensis, 3 exx.

Homo sapiens ssp *entomologicus* natio riojanensis, 1 exx.

Horiek aztertu ziren, baina ez zen horrelako bakar bat ere bildu, bistakoa denez.

Emeak bildutakoen %15 izan ziren. Lan honetarako erabili zen metodologiak ezin izan zuen argitu zergatik bildu zen hain eme gutxi. Hori ikerketa soziologiko baterako gaia izango da hurrengo batean (finantzaketa lortzen bada).

Emaitzak eta eztabaida

Aurtengoan hogeit hamar (20) espezimena bildu dira orotara. Hamarkada honetan hogeita hamar (31) izan da bildutako kopururik altuena eta hamabost (15) baxuena. Datu horiek kontuan izanik, oraingo kontzentrazioan bildutako espezimena kopurua orain arteko batzaz beste-koa baino baxuexagoa izan da (21,2 exx.).

Kontzentrazioa Gipuzkoanus natio-ko espezi-zen gehiago bildu zen, beste natio batzuetakoak baino. Ondorioz, esan daiteke amuaren usainak indarra eta erakartzeko ahalmena galdu egiten dituela distantziarekin batera. Aurtengoan desagertu egin dira 200 kilometro-tako distantziatik gizendegira etortzen zirenak, aurreko urteetan kopuru handi xamarrean agertzen baziren ere. Arrazoiak zehaztea zaila da. Izan daitezkeen artean egon daitezke eguraldi txarra, argaltzeko dietak eta burube-roi dagozkien hanka-sartzeak.

Aldiz, lehen inoiz agertu ez diren hiru espezi-zen ikuskatu genituen lehen aldiz: Ignacio

Material estudiado

5 de Abril de 2014; Restaurante Ugaldetxo, Hernani, Gipuzkoa. 60 metros de altitud, UTM 30TWN8786.

Homo sapiens ssp *entomologicus* natio gipuzkoanus, 10 exx.

Homo sapiens ssp *entomologicus* natio bizkaianus, 3 exx.

Homo sapiens ssp *entomologicus* natio navarricus, 3 exx.

Homo sapiens ssp *entomologicus* natio alabensis, 3 exx.

Homo sapiens ssp *entomologicus* natio riojanensis, 1 exx.

Todos ellos observados, no se colectó ningún ejemplar por razones obvias.

El porcentaje de hembras fue de un 15 % en el total de ejemplares, este escaso número no puede ser explicado con la metodología empleada en este trabajo y será objeto de un futuro estudio de ámbito sociológico (si se obtiene financiación).



Resultados y discusión

En esta edición se han reunido a un total de veinte (20) especímenes. A lo largo de la década ha habido un máximo de treinta y uno (31) y un mínimo de quince (15), la actual concentración supone una asistencia ligeramente por debajo de la media (21,2 exx.).

La elevada concentración de individuos observados de la natio gipuzkoanus, permiten afirmar, que los efluvios de los cebos pierden intensidad y poder atrayente con la distancia. Así, han desaparecido en esta ocasión los procedentes de lugares alejados más de 200 kms del cebadero, que en ediciones pasadas hicieron acto de presencia en buen número, no pudiendo precisarse las causas. Entre las más

Perez Moreno, Maitane Barrio eta Ailander Urriaga (markatu egin ziren hemendik aurrerako jarraipena egiteko). Ezin esan, ordea, amuak soilik erakarri zituenik; aurreko deialditan agertutako espezymen adituren batek arrastaka ekarriak izan zirela esango nuke nik.



Indibiduo horien arteko bizikidetzeta eta jakinduria nahiz esperientzia trukaketa izan ziren eragile nagusi, ekintza arrakastatsua izan zedin. Trofismoari dagokionez, hau da, elikadurarekin zerikusia duten zelulen funtzioari dagokionez, urtero arrakasta handia lortzen dute amu solidok: Tolosako babarrunak, entsaladak, sagardotan egositako txorizoak, ozpinetan jarritako antxoak, baita entrekotak eta hainbat arrain motak ere. Gehien erakartzen duen likidoa bertako sagardoa dela esan daiteke, ardoa bazterrean utzi gabe. Hala ere, bukaeran kafea, patxarana eta uxuala izaten dira.

Eskertza

Ikerketa honen egileak denak eskertu nahi ditu eskainitako laguntzagatik, ezinezkoa izango baitzen lan hau burutzea honako hauen laguntzarik gabe: Gipuzkoako Entomologia Elkarte, antolakuntza eta beharrezkoak diren baimenak lortzeagatik; Ugaldetxo Jatetxea amu erakargarriak prestatzeagatik eta beharrezko ontziak jartzeagatik; eta gure kolaboratzaile-zerbitzari Amaia, Arantzak lagunduta, aztergai ziren espezymenak erakartzeko amuak eskaini eta banatzeagatik.

"Lanarekin" aurrera egitea espero dugu datorren urtean, betiko tokian, beti bezala. Adiorik ez.

probables se encuentran: las inclemencias del tiempo, dietas de adelgazamiento y los despistes propios de mentes calenturientas.

Si se han atraído tres ejemplares nuevos no marcados anteriormente que responden a los nombres de Ignacio Pérez Moreno, Maitane Barrio y Ailander Urriaga (fueron marcados para su seguimiento), aunque no puede considerarse su presencia como producto únicamente de la atracción de los cebos ya que han podido ser arrastrados seguramente por algún espécimen ya experimentado que haya frecuentado anteriores reuniones.

La convivencia entre estos individuos y el intercambio de conocimientos y experiencias se ha mostrado como factor de primera línea en el éxito y buen desarrollo del evento.

En cuanto al trofismo, año tras año vienen causando furor cebos sólidos como las alubias de Tolosa, las ensaladas, el chorizo a la sidra, los boquerones en vinagre, así como los entrecortes y ciertas variedades de pescado. Entre los líquidos atrayentes, manifiesta su elevada eficacia la sidra del país, bien secundada por los vinos aunque al final de la concentración se vean sustituidos por cafés, pacharán y orujo.

Agradecimiento

El autor de este estudio debe agradecer a todos aquellos la colaboración prestada sin la cual no hubiera sido posible su realización: A la Sociedad Guipuzcoana de Entomología, por su cobertura organizativa y la gestión de los permisos correspondientes; al Restaurante

Ugaldetxo por la preparación de los cebos atrayentes y los recipientes necesarios, y a nuestra colaboradora-camarera Amaia, apoyada siempre por

Arantza por ofrecer y distribuir los cebos entre los especímenes objeto del estudio.

Esperamos continuar el "trabajo" el próximo año, donde siempre, como siempre. Hasta siempre.



GIPUZKOAKO INTSEKTUAK - INSECTOS DE GIPUZKOA

LEPIDOPTERA

PAPILIONIDAE

Parnassius apollo

(Linnaeus, 1758)



Neurria: 70-85 mm.

Mendi hegietan gora eta behera ibili ohi dira pausatu ere egin gabe. Ekainetik irailera aurki daitezke belaunaldi bakar batean.

Beldar gisa eta setazko kapulu fin batez babestu ondoren lur azpian ezkutatuta hibernatzen dute. Udaberrian irteten dira eta krisalidatu aurretik Crassulaceae-ak (*Sedum*) eta Saxifragaceae-ak (*Saxifraga*) janez jarraitzen dute hazkundera.

Gipuzkoan oso arraroa da.

Tamaño: 70-85 mm.

Vuela incansable subiendo y bajando por las laderas de las montañas. Tiene una sola generación de junio a septiembre.

Invierna como oruga, rodeada de un ligero capullo de seda, oculta en el suelo. Sale en primavera y antes de crisalidar, sigue su crecimiento alimentándose de Crassulaceae (*Sedum*) y Saxifragaceae (*Saxifraga*).

Es muy rara en Gipuzkoa.

LEPIDOPTERA

NYMPHALIDAE

Euchloe crameri

Butler, 1869



Neurria: 40-46 mm.

Bi belaunaldi ditu, bata martxotik apirilera eta bestea uztailetik abuztura. Negua krisalida gisa igarotzen du.

Beldarrak Brassicaceae-ak janez elikatzen dira: *Iberis*, *Raphanus*, *Biscutella* eta *Sisymbrium*.

Gipuzkoan maiztasun gutxikoa da.

Tamaño: 40-46 mm.

Vuela en dos generaciones en marzo-abril y julio-agosto. Invierna como crisálida.

Las orugas se alimentan de Brassicaceae (*Iberis*, *Raphanus*, *Biscutella* y *Sisymbrium*).

Es poco frecuente en Gipuzkoa.

GIPUZKOAKO INTSEKTUAK - INSECTOS DE GIPUZKOA




Neurria: 66-78 mm.

Uztaitetik abuztura aurki daitezke, belaunaldi bakar batean.

Beldar gisa ematen dute negua.

Violaceae-ak (*Viola*) janez elikatzen dira.

Gipuzkoan oso arraroa da.



Tamaño: 66-78 mm.

Vuela en una sola generación de julio a agosto.

Inverna como oruga.

Se alimentan de Violaceae (*Viola*).

Es muy rara en Gipuzkoa.



Neurria: 36-44 mm.

Udaberri udazkena tartean hiru belaunaldi izan ditzakete.

Oro har beldar gisa hibernatzen dute baina arrautza, krisalida edo heldu gisa igaro dezakete negua.

Violaceae-ak (*Viola*) janez elikatzen dira.

Gipuzkoan maizkoa da.



Tamaño: 36-44 mm.

Puede tener hasta 3 generaciones de primavera a otoño.

Inverna generalmente como oruga, pero puede hacerlo como huevo, crisálida o adulto.

Las orugas se alimentan de Violaceae (*Viola*).

Es frecuente en Gipuzkoa.

LEPIDOPTERA

NOCTUIDAE

Hecatera bicolorata

(Hufnagel, 1766)

Neurria: 28-35 mm

Helduek maiatza eta iraila bitartean egiten dute hegan, bi belaunalditan. Ur ibilgu inguruetakoko baso eta eremu hezeetara jotzen dute sarritan.

Beldarrek Asteraceae familiako lore horiak jaten dituzte (*Crepis*, *Hieracium* eta *Sonchus*) eta pupa gisa ematen dute negua.

Gipuzkoan maizkoa da.



Tamaño: 28-35 mm.

Los adultos vuelan entre mayo-septiembre en dos generaciones frecuentando bosques y terrenos húmedos cerca de cauces de agua.

Las orugas se alimentan de flores amarillas de la familia Asteraceae como *Crepis*, *Hieracium* y *Sonchus* e invernan como pupa.

Es frecuente en Gipuzkoa.

LEPIDOPTERA

NOCTUIDAE

Helicoverpa armigera

(Hübner, [1808])

Neurria: 35-40 mm

Helduak ekainetik azarora ikus daitezke, bi belaunalditan normalean. Migratzaileak dira eta biotopo mota guztietan aurki ditzakegu.

Beldarrak polifagoak dira eta tomateari, artoari, piperrari... kalte handia eragiten diote; baita hainbat landare belarkarari ere: *Plantago*, *Medicago*, *Ulex*... Beldar horiek erazteko Hymenoptera espezie batzuk erabiltzen dira.

Gipuzkoan oso maizkoa da.



Tamaño: 35-40 mm.

Los adultos vuelan generalmente en dos generaciones de junio hasta noviembre. Tienen comportamientos migratorios y frecuentan todo tipo de biotopos.

Las orugas son polífagas y causan estragos en los tomates, maíz, pimientos... así como plantas herbáceas como *Plantago*, *Medicago*, *Ulex*... Para su erradicación se usan algunas especies de Hymenoptera.

Es muy frecuente en Gipuzkoa.

GIPUZKOAKO INTSEKTUAK - INSECTOS DE GIPUZKOA



Neurria: 22-26 mm

Helduek maiatzetik irailera egiten dute hegan, bi belaunalditan. Hosto galkorreko baso heze-etan aurki ditzakegu, baita belaze eta zuhaixketan ere.

Beldarrek *Rubus*, *Clematis*, eta abar jaten dituzte.

Penintsula iparraldeko espezie hau erraz bereiz daiteke, hegoetan duen marrazkiagatik. Gipuzkoan maizkoa da.



Neurria: 17-22 mm

Imagoak, hau da, helduak, bi belaunalditan ikus ditzakegu hegan egiten, maiatza eta iraila bitartean. Baso mistoetan, belardietan eta zuhaixketan ibiltzen dira.

Beldarra polifagoa da, eta haritzaren, urkiaren eta aranaren hostoak jaten ditu, baita hainbat landare belarkara ere: *Crataegus*, *Rubus*, *Urtica*...

Espezie hau penintsula iparraldean aurki daiteke soilik.

Gipuzkoan urria da.

LEPIDOPTERA

NOCTUIDAE

Herminia tarsicrinalis

(Knoch, 1782)

Tamaño: 22-26 mm.

Los adultos vuelan en dos generaciones de mayo hasta septiembre en bosques húmedos de hoja caduca, prados y arbustos.

Las orugas se alimentan de *Rubus*, *Clematis*...

Esta especie del norte peninsular es fácil de determinar por su dibujo alar.

Es frecuente en Gipuzkoa.

LEPIDOPTERA

NOCTUIDAE

Herminia grisealis

(Denis & Schiffermüller, 1775)

Tamaño: 17-22 mm.


Los imagos vuelan en dos generaciones entre mayo y septiembre frecuentando bosques mixtos, praderas y arbustos.

La oruga que es polífaga se alimenta de hojas de robles, abedules, ciruelos... así como plantas herbáceas: *Crataegus*, *Rubus*, *Urtica*...

Esta especie solo se encuentra en el norte peninsular.

Es escasa en Gipuzkoa.

ENTOMOFAUNAREN INBENTARIOA / INVENTARIO DE LA ENTOMOFAUNA



Inbentarioaren proiektua aurrera doa

Gipuzkoako intsektuen dibertsitatearekin liluratuta jarraitzen dugunez, haren inbentarioaren proiektuarekin jarraitzen dugu aurrera. Eta hori bezain garrantzitsua da Gipuzkoako Foru Aldundiak (GFA), Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuaren bidez, jarraitzen duela horren alde apustua egiten. Izan ere, 2013ko bukaera aldera, “Entomofaunaren inbentarioa. 2013ko kanpaina” proiektuaren txostena entregatu genuen. GFAREN finantziazioari esker, Gipuzkoako Intsektuen Behatokiaren barruan garatzen den proiektua, alegia. Gogoratu behar da Aiako Harria Parke Naturaleko inbentarioaren oinarria dela proiektu hau. Parke horretan ere jarraitzen dugu intsektuak harrapatzen, baina 2011z geroztik ikerketa-eremua Gipuzkoa osora zabaldu dugu.

Txostena entregatze-datara arte **2741 espezie** inbentariatuta generamatzan, 241 familia eta 20 ordenari dagozkienak. Zati batean, Elkarteko hainbat kidek, eta hainbat adituren laguntzarekin ere, egindako laginketa eta identifikazioen ondorioz. Eta beste zati batean, aurretiko iturrien edota proiektuaren garaikide diren iturrien azterketa bibliografikoaren ondorioz.

Ea laster 3000 espeziataraino iristen garen!

El proyecto de inventario sigue

Nos sigue maravillando la diversidad de insectos de Gipuzkoa, así que seguimos con el proyecto de su inventario. Y no menos importante, la Diputación Foral de Gipuzkoa (DFG), a través de su Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo, sigue apostando por ello. En efecto, a finales de 2013 se entregó el informe del proyecto “**Inventario de la entomofauna. Campaña 2013**” que se desarrolla en el marco del Observatorio Entomológico de Gipuzkoa gracias a la financiación de la DFG. Y actualmente vamos adelante con la campaña de 2014. Se debe recordar que este proyecto es heredero del inventario en el Parque Natural de Aiako Harria. Ahora continuamos recolectando allí también, pero desde 2011 hemos ampliado el ámbito de estudio a toda Gipuzkoa.

Hasta la fecha de entrega del informe se llevaban inventariadas **2741 especies** pertenecientes a 241 familias y 20 órdenes. En parte, como resultado de los muestreos e identificaciones realizados por diversos miembros de la Asociación y con la colaboración de diversos especialistas. Y en parte también, como fruto de la revisión bibliográfica de fuentes anteriores o simultáneas al proyecto.

¡A ver si pronto llegamos a las 3000 especies!

POESIA LIBURUTEGIAN


Ez, ez da asmakizuna, baizik eta zapatariari buruzko olerki baten hasiera. Zapataria edo, katalanez, "sabater". Kontua da Eduard Vives, nazioarte-mailako entomologo handia izateaz gain, poeta ere badela. Eta "L'insectari" liburua- ren ale sinatu bat oparitu diola Elkartearen liburutegiari. Bertan 22 intsekturen inguruko poemak biltzen dira, bai eta Alexandre Segroveren irudi ederrak ere. Azken hau, Terrassan bizi den museografo mexikarra da, Terrassa ere Eduarden hiria izanik.

*Neda amunt i avall
gràcil mariner
rema sens parar
a contra corrent.
Potes llargues tens
sense caminar,
tot el teu daler
és poder nedar.*

Hizkuntzaren edertasunak eta intsektuen edertasunak elkar limurtu nahian nola dabilzan erakutsi ezezik, beste hainbat gauza ere irakasten digu poema-bilduma honen irakurketak. Besteak beste, intsektu ezagunenetakoen katalanezko izen arruntak: el saltamartí (matxinsaltoa), l'estiracabells (burruntzia), el berrat pudent (zimitz pentatomidoa), el papaorelles (ipurtsardea), el pregadéu (marisorgina)...

Maitagarri agertzen zaizkigu liburuan gure lagun sei-hankadunak. Hori bai, poz, malenkonía, ironía, samurtasuna edota beste giza esperientzia batzuen ondoan, inoiz ez da faltan sumatzen, testuaren azpitik, nahitaezko zehaztasun bat, zeina, bide batez esanda, erabat komenigarria bailitzateke beste sortze- lan fabulistikotik askotan ere.

Ezin lerro hauek bukatu egileei zoriondu gabe, ez eta gure liburutegiari egindako dohaintza eskertu gabe ere. Moltes gràcies, Eduard!




POESÍA EN LA BIBLIOTECA

*Neda amunt i avall
gràcil mariner
rema sens parar
a contra corrent.
Potes llargues tens
sense caminar,
tot el teu daler
és poder nedar.*

No, no es una adivinanza, sino el comienzo de un poema sobre el zapatero, o "sabater" en catalán. Y es que además de un gran entomólogo de renombre internacional, Eduard Vives es un poeta. Y ha regalado a la biblioteca de la Asociación un ejemplar firmado de "L'insectari", un libro con sus poemas sobre 22 insectos, bellamente ilustrado por Alexandre Segrove, museógrafo mexicano afincado en Terrassa, ciudad también de nuestro socio Eduard.


La lectura de este poemario no solo nos aporta la belleza del lenguaje coqueteando con la belleza de los insectos, sino que también nos enseña cosas. Sin ir más lejos, los nombres vulgares en catalán de algunos de los insectos más populares: el saltamartí (saltamontes), l'estiracabells (libélula), el berrat pudent (chinche pentatómido), el papaorelles (tijereta), el pregadéu (mantis)...



Simpáticos es como se nos presentan en esta obra nuestros pequeños amigos de seis patas. Eso sí, junto a gozos, melancolías, ironías, ternuras y otras humanas experiencias, en ningún momento se echa a faltar un necesario rigor subyacente que, dicho sea de paso, ya quisieran para sí muchas de las creaciones fabulísticas.

No podemos terminar estas líneas sin felicitar a los autores y agradecerles la donación de este libro a nuestra biblioteca. Moltes gràcies, Eduard!

HEMEROTEKA



Noticias de Gipuzkoa 01/03/2014

PICADURAS

- **Reacción.** En personas alérgicas pueden aparecer reacciones exageradas, como ampollas, sensación de asfixia, dificultad respiratoria, hipotensión o shock. En estos casos más graves, es importante ir siempre identificados mediante pulseras.
- **Repelentes.** Para evitar las picaduras, es recomendable aplicar los repelentes adecuados y colocar mosquiteras en las habitaciones. También llevar vestimenta y calzado adecuado, para evitar la picadura de parásitos como las garrapatas que pueden transmitir numerosas enfermedades.

Noticias de Gipuzkoa 06/08/2014

DONOSTIA - Roedores, cucarachas y chinches de la cama son las plagas más extendidas en la Península Ibérica en los últimos cinco años, como consecuencia del crecimiento de las urbes, la globalización, el cambio climático, el incremento de los viajes o el tránsito de mercancías por el mundo, según un estudio realizado por la Asociación Nacional de Empresas de Control de Plagas (Anecepla).

Pero hay más, "en los próximos años asistiremos a un incremento de la población de plagas. El crecimiento de las ciudades, el calentamiento global, con inviernos cada vez más templados y ciclos reproductivos más cortos, y la expansión del turismo, contribuirán en buena parte a ello", explica la directora general de Anecepla, Milagros Fernández de Lezeta.

Se trata de una investigación que ha tenido como objetivo analizar la evolución del sector de servicios biocidas y de las plagas urbanas en el Estado español y Portugal, en el último quinquenio, y que fue presentado ayer en el marco del Congreso Profesional y Feria de Control de Plagas y Sanidad Ambiental, Expo-cida Iberia 2014.

Noticias de Gipuzkoa 01/03/2014

HEMEROTEKA

MOSQUITO TIGRE Y AVISPA ASIÁTICA

Además de combatir plagas tradicionales y especies como las chinches de la cama, que hasta hace unos años estaban erradicadas en el Estado español, las empresas se enfrentan ahora a otras especies exóticas invasoras como el mosquito tigre, la avispa asiática y americana, el picudo rojo y negro, la cotorra argentina, la cotorra Kramer o la *Periplaneta americana* (cucaracha americana). La cucaracha *Supella Longipalpa*, de origen africano, y conocida como la cucaracha de banda marrón, es una de las últimas especies que amenaza con asentarse en el Estado español.

Noticias de Gipuzkoa 01/03/2014



Cerambyx cerdo Burbuna / Etsaya

Burbuna edo etsaya, harizti zaharretako hegalaria

Ingurua aldatzen joan den bezala, Cerambyx cerdo izeneko zomorroa asko urritu da gurean. Harizti zaharrak malte ditu, eta haien barruan urteak pasa eta gero aterako da zomorro itxuran, hegan, beroak hasten dituenean. Animalia bera babestua dago, eta Urumea bailaran bi etxetan bakarrik identifikatu dute izen eta guzti. Ereñotzun burbuna deitu diote, eta Jauregin etsaya. Ezaugarri horientatik, egitasmoari izena emango dio. ||

Hemaniko Kronika 2014/03/09



Restaurante VGALDETXXO

Jatetxea










Ereñozu auzoa - Tel.: 943 55 02 40
20128 HERNANI (Gipuzkoa)



INTSEKTUEKIN JOLASEAN JUGANDO CON INSECTOS


Faustino Uranga



	3		13
5		11	
			
4	15		

Sabina arkakusoak karratu magiko pitagorikoetan oinarritutako joko hau proposatzen digu. Bere argazkia zenbaki batez ordezkatu behar dugu, honako baldintza hauek kontuan hartuta: batetik hamaseira dozenen zenbaki guztiak erabili behar dira eta ilara eta zutabe bakoitzaren batuketaren emaitzak 34 izan behar du, baita erdiko bi diagonalen batuketaren emaitzak ere.

La pulga Sabina nos propone el siguiente juego basado en los cuadrados mágicos pitagóricos. Debemos de sustituir su foto por un número según las siguientes condiciones: En total se deben de utilizar las cifras del 1 al 16. Y cada fila, columna así como las dos diagonales centrales deben de sumar 34.






Oraingoan Sabinak asmakizun matematika-logiko bat azalduko digu. Asmakizun hau Txinako ikasle batzuek egin beharra izan zuten Hong Kong-eko ikastetxe batean onartuak izateko.

Lehen Hezkuntzako ikastetxean onartuak izateko, sei urteko umeek hainbat eragiketa matematiko egin behar izaten dituzte, besteak beste, orain aipatuko duguna. Umeek 20 segundo besterik ez zuten azterketako 21. galderari erantzuteko. Aparkalekuko zein tokitan dago irudiko automobila?

Ahora Sabina nos muestra un acertijo matemático lógico al que se enfrentaron los estudiantes chinos de primaria en un examen de admisión de un colegio de Hong Kong.

Para ser admitidos a la Escuela Primaria, los niños de seis años de Hong Kong tienen que resolver varios problemas matemáticos, entre ellos este. Los niños tenían apenas 20 segundos para resolver el problema de la 21ª pregunta del examen. ¿En qué plaza de parking está aparcado el coche de la ilustración?

Aurreko zenbakiko erantzuna / Respuesta al número anterior:



Planetan 10 trilioi
intsektu daude,
pertsona bakoitzeko
200 milioi.
Eta identifikatutako
1,2 milioi intsektu
espezietatik
400.000 bat
kakalardoak dira.

El *Stenoptinus insignis* es un carábido africano llamado escarabajo bombardero. Cuando se siente amenazado lanza un spray rojizo, produciendo un sonido parecido a un disparo. Logra alcanzar hasta 30 cm. Algunas especies lo pueden repetir de 15 a 20 veces seguidas.

Munduko burruntzirik txikiena
Afrikan bizi den *Nannophya pygmaea* da.
15 mm ditu luzeran eta 20 mm-ko hego-zabalera du.
Handiena, aldiz, *Megaloprepus coerulatus* da
eta 19 cm-ko hego-zabalera du.

Las mariposas hembras
de la Monarca en cuanto se
sienten infectadas con parásitos
prefieren poner sus huevos
sobre plantas como las *Asclepias*
pero siempre evitando el látex venenoso
para que sus crías nazcan sanas.



